

Boluntariotzaren Euskal Estrategia



2013ko uztailaren 30a

2013 – 2016



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO

Aurkibidea

- 1. Aurkezpena.**
- 2. Boluntariotzaren II. Euskal Planaren Balorazioa.**
- 3. "EAEko boluntariotzari buruzko azterlana: kuantifikazioa eta ezaugarriak 2012" lanean identifikatutako beharrianak.**
- 4. 2013-2016 aldirako erronkak, ekintza-ildoak eta lehentasunezko helburuak.**
- 5. Jarduera-oinarriaren eta egutegiaren proposamena.**

Boluntariotza parte-hartze sozialaren adierazpide zehatz gisa ulertzen da, interes orokorreko eta izaera solidarioko jarduera sortak osatzen du, eta jarduera horiek irabazi-asmorik gabeko proiektu kolektibo baten inguruko pertsonak garatzen dituzte. Partaidetza horrek askea izan behar du, eta lan-, funtzionario- edo merkataritza-harremanetara edo betebeharrak pertsonal edo juridikora lotu gabea.

Boluntarioek komunitateari zerbitzua eskaintzeko egiten dute lan, eraldaketa eta guztiontzako onura bilatzen dute eta beste gizarte-eragile batzuen ekintzarentzat osagarri dira; hau da, ez da herri-administrazioen erantzukizunaren utzikeria edo zerbitzu profesionalak ez ordaintzea estaltzeko sortu.

(Boluntariotzaren Euskal Kontseilua, 2013)

"Etorkizunean boluntariotza zabaldu egin behar dela ulertzen dugu, baina batez ere sakondu egin behar da". Hori dela eta, boluntariotza ireki eta parte-hartzailean sinesten dugu, klase, kultura eta belaunaldi-arteak izango dena. Elkarrengana hurbilagokoak diren harremanak eta bi noranzkoko ikuspegia dituen boluntariotza nahi dugu, garrantzitsuena elkarrekiko erantzukizunak izatea helburu duena, pertsona batek besteekin eta guztiok komunitatearekin konpromisoak dituenak; batzuek eman eta besteek jaso beharrean, guztiok eman eta guztiok jasotzen dugun komunitatea sortzeko. Ez dugu nahi lerro banatzaileak marraztea ardatz duen boluntariotzarik, aldiz, sinergietan eta bestelako partaidetza moduekin harremanetan sakonduko duena nahi dugu, hazten doazen beharrezkoen eta inork jorrotzen ez dituen arazoei erantzun goiztiarra emanez."

(PVE, 2012, "Boluntariotzan sakontzea; 2020ra bitarteko erronkak")

1- Aurkezpena

Dokumentu honek **2013-2016 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategia** biltzen du, eta aurretik egindako Boluntariotzaren Euskal Planen jarraipena da. Aurrekari horiek gure Autonomia Erkidegoan ekintza boluntarioa sustatzeko politikak gidatu dituzte 2003tik. Oroz gain, euskal herritarren zati handi baten parte-hartze altruista, antolatu eta solidarioak esan nahi duen ezinbesteko gizarte-eginkizuna sustatu eta horri balioa ematearen aldeko apustua da.

Halaber, estrategia honek gure Autonomia Erkidegoko boluntariotza sustatzeko politikak eta Estatu mailan nahiz Europa eta nazioarte mailan sustatzen ari diren politika eta neurriak lotzea bermatu nahi du, euskal administrazioek eta EAEko hirugarren sektoreak berak dituzten kanpoko harreman eta parte-hartzeez baliatuz.

Dokumentu hau Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak sustatu du eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren berrespen eta parte-hartze aktiboa izan du. Kontseilua 2002an sortu zen eta hainbat eragilek osatzen dute, dela pribatuek (EAEko hirugarren sektoreko erakunde eta boluntariotza sustatzeko agentziek), dela publikoek (udalak, aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, dagozkien sailen bitartez).

Esparru estrategiko berri horrek behar bezala identifikatuta edukitzen jarraitu nahi ditu antolatutako gizartearen parte-hartze solidarioaren esparruan dauden beharrian eta erronkak, gizarte-eragile bakoitzaren eginkizunak lerrotuz.

Aipatu **gizarte-eragileak**, boluntariotza eta parte-hartze sozialaren errealitate eta etorkizunari zuzenean lotutakoak, honako hauek dira:

- Boluntarioak dituzten gizarte-erakundeak.
- Hirugarren sektoreko eta boluntariotzako sareak.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.
- Udalak eta bertako taldeak.
- Foru-aldundiak.
- Eusko Jaurlaritza.
- Boluntariotzako lurralde- eta toki-agentziak.
- Beste eragile eta baliabide soziokomunitario batzuk.

Hiru ildo estrategiko handik osatzen dute 2013-2016 aldirako euskal estrategia honen egitura:

1. **1. ildo estrategikoa: Ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa den herritartasuna sustatzea.** Ezinbesteko xedea da, oraindik ere, benetako elkartasun- eta partaidetza-kultura sustatzea, gizarte osoaren, ekintza boluntarioaren eta gizarte-beharrizanei erantzuna ematen laguntzeko behararen arteko zuzeneko lotura egonkorra ezartzeko. Zalantzarik gabe, erronka horren funtsezko alderdia da orain eta hemen gure gizartearen hobekuntzan inplikaturako milaka pertsona eta talderen eginkizunari gizarte-onespena ematea.

2. **2. ildo estrategikoa: Elkarre-sare dinamiko baten garapena sustatzea, ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialaren erronka berriei erantzuna emateko gai izango dena.** Gizarte-erakundeak dira boluntariotzaren partaidetza gauzatu eta horri itxura ematen dioten egiturak, eta ezinbestekoa da pertsona boluntarioen arreta eta dinamizazioari lotutako prozesu guztiak babesteko neurriak giltzatzan jarraitzea, parte-hartze sozialeko esperientzia arrakastatsu eta eraginkorrak gauzatzeko funtsezko faktore gisa. Aldi berean, boluntariotzako erakundeak ere babestuko dira, haien iraunkortasun, gardentasun, modernizazio eta komunitate-dimentsioari eusteko.

3. **3. ildo estrategikoa: Boluntariotzaren fenomenoaren ulermena normalizatzea, gizarte- eta komunitate-eginkizuna nabarmenduz eta berau bultzatzen duten gizarte-eragileen giltzate- eta koordinazio-esparruak indartuz.** Lankidetzan, harreman eta komunikazio-sare eraginkor baten eraikuntzan EAEko esparru guztietan aurrera egitea da, eta, horretarako, hirugarren sektoreak berak duen egungo egituraketa maila eta gure komunitatean sendotzen ari den herri-administrazioekin elkarrizketarako espazioen aldi bereko aurrerapena aprobetxatzea.

Eragileen jarduna mugatuko duen plan hertsia eta anbizio gehiegikoa (eskuragarri dauden baliabideen eta loturiko administrazio-prozesu konplexuen mendeko) plan bat baino, une sozial honetan estrategia sinpleagoa baina inplikatioagoa garatzea erabaki da; ekintza eta jardura gutxiago izan arren, errealistagoa eta eragileentzako onargarriagoa izango da. Azken batean, erronka komun batzuk lortzea ardatz duen esparrua nahi du izan. Erronka horiek egungo gizarte-egoerarekin bat datozen funtsezko erronkatzat hartzen dira.

Hori guztia dela eta, jarraian aurkeztuko dugun strategiaren helburua da proposamen irekia, dinamikoa eta malgu izatea, agertzen doazen eskakizun, beharrian edo aukera berriak txertatzeko gai izango dena. Bereziki, partekatutako bide-orria izan nahi du, gure herrialdeko eragileei helburuak partekatu, indarrak batu eta herritartasun aktibo eta konprometitua lortzen laguntzeko. Herritar horiek, hartara, gizarte zibil heldu, egituratu, kritiko eta gure komunitateen garapen eta hobekuntzarekin arduratsuagoa eraikiko dute.

2. Boluntariotzaren II. Euskal Planaren Balantzea

EAEn ekintza boluntarioa sustatzeko borondate irmoa badago ere, eta EAEn hainbat boluntariotza-plan onetsi eta abian jarri badira ere, badirudi benetako aurrerapausoa oraindik ere eskasa izan dela eta beharrian eta erronka berriek aurreko urteetan emandako erantzunak gainditzen jarraitzen dituztela. Aipatu planak oso eraginkorrak izan ez diren sententzia dago, eta boluntariotzako erakundeek plan horiek urruntasun batetik bizi izan dituztela. Ildo horretatik, ezin da alde batera utzi gizarte-erakundeek uste dutela herri-administrazioek, borondate ona badute ere, Planaren ekintzetan inplikazio eskasa eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan bertan parte-hartze urria izan dutela.

Beraz, ondorio gisa atera daiteke planak baliozko tresnak izan direla erreferentzia-esparruari dagokionez, baina ez direla oso dinamiko eta erabilgarriak izan aurreikusitako erronka eta ekintzen garapenari dagokionez. Badirudi Euskadin, oraindik ere, boluntariotzaren errealitatearen gaineko ezjakintasun handia dagoela, ez dela ezagutzen benetan duen garrantzia, zein den bere benetako espazio soziala. Horrez gain, ez dago EAEn jarduten duten boluntariotzako elkarten nortasun komun partekaturik.

Bestalde, *Boluntariotzaren II. Planaren egoerari buruzko txostenak* ondorio orokor eta esanguratsuak eman zituen, azpimarratzekoak direnak –laburbilduta–, aurreikusitako ekintzen betearazpen maila oso txikia izatea azaleratzen baitute:

1. Boluntariotzaren II. Euskal Planak, horren garapeneko zati handi batean zehar, ez zuen **lidergorik** izan. Beharrezkoa da, beraz, **Boluntariotzaren Euskal Kontseilua** EAEn ekintza boluntarioaren dinamizazioa bermatzeko elementu gisa garatzea.
2. 2008an onartutako Plan Operatiboaren asmoa zen hasierako argazki bat izatea, urteetan zehar osatu behar zena. Hala ere, lan hori ezin izan zen egin, eta, beraz, bigarren Plana ezartzeko aldiari landu behar ziren **berariazko helburuak, kasu askotan, edukiz eskas geratu dira**.
3. **Asmo handiko plana zen**, eta ekintza asko identifikatu ziren, baina, azkenean, ekintza horietako asko ezin izan ziren garatu, hainbat arrazoi direla eta. Era berean, eragileetako askok ez dituzte bete Planarekin funtsezko hainbat helbururen inguruan hartutako konpromisoak.
4. **Bereziki balorazio positiboa** merezi du **2011n Boluntariotzaren Europako Urtea** zela eta garatutako ekintza-planak eta 2012ko azaroan **Euskadin** arrakastaz ospatutako **Boluntariotzaren Estatuko XV. Biltzarra**. Azken horrek, bertan parte hartu zuten pertsona eta boluntario-taldeek aldetik oso bertaratze eta balorazio positiboa jaso zuen.
5. Azkenik, kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da **Planaren ebaluagarritasuna garatzeko zailtasuna**, horren konplexutasunagatik beragatik eta aurreikusitako ekintzaren jarraipenerako urteko txostenak ez zirelako egin, lehenengo arrazoigatik hain justu.

BOLUNTARIOTZAREN II. EUSKAL PLANAREN BALIOESPEN OROKORRAK ETA HORREN LUZAPENA

Ondorio gisa, lortutako diagnostikoaren informazioa hainbat gai-arlotan banatu da; honako hauek dira:

- Positiboki balioetsi da Boluntariotzaren II. Euskal Plana, **erreferentzia-esparru komun** bat delako eta **EAEko boluntarioen errealitatearen diagnostikoa** egiten duelako. Horrela, Planak boluntariotzan oinarritutako elkarre-sare bat egituratzeko oinarriak ezartzen ditu, eta **erreferente** bat da boluntarioak dituzten erakundeentzat.
- Azken batean, **beharrezko esparru positibo** gisa ikusten zen, hobeto orientatuta zegoen eta egokiagoa zen estrategia eskaintzeko, gizarte-errealitateari eta hainbat boluntariotzako erakunderen beharrezko egokituta.
- Horretaz gain, Plana arlo horretako **aurrerapen instituzionalaren** adierazle argitzat jotzen da, eta horren asmoa eta orientazioa balioesten da. Boluntariotzaren II. Euskal Plana **Eusko Jaurlaritzaren konpromiso** gisa balioesten da, parte-hartze sozialeko forma horien laguntzarekin eta sustapenarekin, baita gizarte zibilaren elkartasun eta antolamendu forma berrietara egokitzeko ahalegin gisa ere.
- Bestalde, **asmo handiko Plan konplexua zen, ekintzan oso sartua**. Metodologikoki oso baliozkoa zen, **baina ez oso estrategikoa**, ibilbide-orri komun bat falta baitzen eragileentzako lehentasunezko zeharkako erronka batzuekin.

Balorazio orokor horiez gain, txostenak honako berariazko balorazioak nabarmendu nahi ditu:

Erakunde-arteko koordinazioaren garrantzia

Modu positiboan balioesten da Boluntariotzaren II. Euskal Plana hainbat eragilek **adostutako** dokumentu bat dela. Horretaz gain, inplikaturiko sektoreen arteko elkarreagintza erraztu du. Era berean, **eragileen arteko** harremana indartzeko lana egin da, ekintza boluntarioa eguneratzeko eta ahaleginen bikoiztasuna txikiagotzeko.

Bestalde, beharrezkotzat jotzen da inplikaturiko **eragileen arteko komunikazioa** neurri handiagoan zabaltzea, hirugarren sektoreko erakundeen eta herri-administrazioaren arteko harremana handitu eta hobetzeko lan eginez, baita boluntariotza-agentzien eta administrazioen arteko **harreman-esparrua argitzeko** ere.

Halaber, gizarte-erakundeek beharrezkotzat jotzen dute elkarre-sarea osatzen duten eragileen artikulazioa hobetzea, boluntariotza sustatzen duten erakundeen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako bideak ezarri eta/edo hobetuz, mezu komun bat landu eta adoste aldera. Oro har, **erakunde arteko koordinazioaren** hobekuntzan lan egin nahi da, elkarren arteko loturak eta lankidetzak erraztuz.

Horren ildotik, aurreikusitako ekintzen **zeharkako eta sailen arteko ildoak sustatzea** ere gomendatzen da, baita eragile bakoitzaren helburuak eta lehentasunak argi eta garbi zehaztea ere.

Lidergo indartsu baten beharra; Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtsezko eginkizuna.

Prozesuan parte hartzen duten erakunde publiko eta pribatuen iritziz, azpimarratu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat da Boluntariotzaren II. Euskal Planak **ez duela lidergo sendorik** izan konpromisoak bateratzeko eta ekintzen betearazpena bermatzeko.

Ikuspuntu horretatik, aipatu Planaren lidergo parte-hartzaile eta proaktiboa behar dela antzeman da, alor horretako sail eskudunak egiteko eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak dinamizatzen jarraitzeko beharrean oinarrituta, berau EAEko boluntariotzaren alorrean benetako erreferente bihurtu dadin.

Horren ildotik, era berean, oso garrantzitsua da boluntariotzaren arloan ezagutza duten eta tokiko eremuan ekintza boluntarioa zentralizatu eta dinamizatzen duten **udal mailako figurak** izatea.

Boluntariotzaren II. Euskal Plana hedatzea

Prozesuan parte hartzen duten erakunde pribatuek nahiz publikoek uste dute Boluntariotzaren II. Euskal Planak **hedapen, ondorio eta garrantzi eskasa** izan duela gizartean, boluntarioengan, hirugarren sektoreko erakundeetan eta, azkenik, herri-administrazioetan.

II. Planaren ezagutzan ikusitako defizita informazioaren komunikazio- eta hedapen-arazo bati egotzi zaio, baita EAEko gizarte-eragileek benetako inplikaziorik ez izateari ere.

Ikuspuntu horretatik, ondorengo **boluntariotza-estrategien hedapen eta komunikazio garrantzitsua** egin behar da EAEn. Gainera, komunikazio horrek aukera emango du Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak egindako lana erakundeei eta boluntarioei hurbiltzeko, **parte hartzeko mekanismoak** ezarriz.

Era berean, lan handiagoa egin behar da **Boluntariotzaren Euskal Kontseilua ezagutarazteko**, baita Kontseiluak berak ezarritako ekintzak hedatzeko ere.

EAEko boluntariotzako agentzien zeregina

Kontsultatutako eragile guztiak ados daude EAEko boluntariotza-agentzia guztiek subjektu estrategikoak izan behar dutela Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren diseinuan eta garapenean. Ikuspuntu horretatik, boluntariotzari lotutako lana hiru lurralde-agentzietan (Erdi, Bolunta eta Gizalde), tokiko agentzia eta sareetan (Gipuzkoako Sareginez, esaterako, Portugaleteko Adaka, Getxoko Sarekide, Bizkaiko Boluntariotza Foroa, eta abarretan) zentralizatzea gomendatzen da, herri-administrazioen babesarekin eta horiek agentzien lana sustatuta. Horretaz gain, zehazkiago, hiru boluntariotzako agentzien arteko garapen orekatuagoa proposatzen da.

Ildo horretan, boluntarioak erakartzeari, gizarte-sentsibilizazioari eta informazio- eta zabalkunde-lanari dagokionez EAEko **boluntariotzako agentziek egiten duten lana** azpimarra daiteke. Hala ere, egia bada ere Boluntariotzaren II. Euskal Planak indar handiagoa eman diela agentzia horiei, eta sentsibilizazioa eta erakartzea indartzeko gako elementutzat jotzen badira ere, ezinbestekoa da arlo horietan lana bultzatzen jarraitzea.

Prestakuntza

Hirugarren Sektoreko erakundeek boluntarioentzako **prestakuntza-baliabide** orokorren garrantziari buruz kontzientziatzea gomendatzen da, eta boluntarioek boluntario gisa lortutako esperientziatik albait etekin handiena atera dezaten erraztu eta bultzatzea. Azken batean, **boluntariotzaren prestakuntza bultzatzea** da, beren jardunaren kalitatea, gaitasun kritikoa eta horren ondorioz gizarte-beharrizantetara egokitu eta erantzuna emateko gaitasuna handiagotzeko. Hala ere, egiteke gelditzen da gure lurraldeetan prestakuntzaren errealitateari buruzko azterketa.

Boluntariotza eta parte-hartze sozialaren fenomenoarekin lotutako ikerkuntza hobetzea

Era berean, ezinbestekoa da **boluntariotzaren errealitateari buruzko ikerketa** bat egitea, EAEko boluntarioen egoera argi eta garbi azalduz. Horretaz gain, azterlan horretan boluntariotzaren arloko jardunbide egokiak identifika litezke.

Ekintza boluntarioa eta komunitate-ekintza tokiko mailan sustatzea

Tokiko mailan lan egitea, udal mailan benetako trakzio-eragile gisa egituratzen diren boluntariotzaren arloko ekintzak zentralizatzen dituzten figurak identifikatzeko helburuarekin, elkarre txikiekin elkarlanean.

Sentsibilizazio-ekintzak

EAEko gizarte-erakundeen iritziz, garrantzitsua da, era berean, biztanleria guztia **sentsibilizatzearen** alde lan egiten jarraitzea, eta **ekintza boluntarioari balioa** ematea, hau da, boluntariotzaren balioen gizarte-onarpena indartzea.

Halaber, **boluntariotzaren kultura** eta parte-hartzea sustatzea gomendatzen da, boluntarioek hirugarren sektoreko erakundeen eta gizartearen arteko egituraketan bideratzaile gisa egiten duten lana balioetsiz, eta herritartasun aktiboa eta parte-hartzailea indartzeko estrategia koordinatuak ezarriz.

Horretaz gain, sentsibilizazio-lan horrek hezkuntzarekin lotuta egon behar du, boluntariotza sustatzeko estrategia gisa, adin goiztiarrenetatik parte-hartzean oinarritutako herritarren kultura solidario batean hezteko premia azpimarratuz (**sentsibilizazioaren pedagogia**).

Genero-ikuspegia eta teknologia berriak

Boluntariotzari lotutako lanean kontuan hartu beharreko beste elementu bat **genero-ikuspegia** da, mainstreaminga txertatuz alor horretan gizarte-erakundeek nahiz herri-administrazioek garatzen dituzten prozesu, lan eta ekintza guztietan.

IKTei dagokienez, **gizarte-sareek** eskaintzen dituzten aukerak ere aprobetxatu nahi dira, herritarren koordinazioa, informazioa eta parte-hartzea errazteko nahiz elkartearen kudeaketa bera hobetzeko (barne-kudeaketa, dinamizazioa, komunikazioa, eta abar).

Araudiari dagokionez, ekintza boluntarioaren eta **lan- eta familia-bizitzaren arteko bateragarritasuna** bermatzeko legezko neurriak bultzatu nahi dira.

3- Euskadiko Boluntariotzari buruzko 2012ko Azterlanean identifikatutako beharrianak

2012. urte amaieran EAEko boluntariotzari buruzko lehen azterlana aurkeztu zen. Lan hori EJKo Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak proposatuta egin zen, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren baitan: "[EAEko boluntariotzari buruzko azterlana: Kuantifikazioa eta ezaugarriak. 2012](#)".

Azterketa kuantitatiboaz gain, autonomia mailako lehen azterlan hori izaera kualitatiboazko informazio eta balorazioak jasotzeko ere aprobetxatu genuen; bereziki, boluntarioei erronka nagusien inguruan galdetu zitzairen, alde batetik, boluntariotzaren sustapena gidatu beharko luketen erronken inguruan eta, bestetik, beren erakundeek aurre egin beharreko erronken inguruan.

Zalantzarik gabe, aipatu ondorio horiek kontuan hartu dira **2013-2013 aldirako Estrategia** hau egiteko, eta jarraian bildu ditugu ekarpen nagusiak.

A- ZER PROPOSATZEN DUTE BOLUNTARIOEK EKINTZA BOLUNTARIOA SUSTATZEKO?

Boluntarioek Administrazioen aldetik aintzatespen handiagoa eskatzen dute (boluntarioen ia erdiak ez daude pozik administrazioaren aintzatespenarekin) eta jarraian bildu ditugu boluntarioek egindako proposamen batzuk, pisu gehien duten bi gizarte-eragileek, herri-administrazioak eta komunikabideek, borondatezko ekintza sustatzeko egin dezaketenenaren inguruan.

Herri-administrazioa

Boluntarioek boluntariotza-gaietan erabateko inplikazioa izatea eskatzen diete herri-administrazioei; izan ere, zenbat eta handiagoa izan administrazioen inplikazioa, orduan eta sendoagoa izango da gizartearen parte-hartze eta inplikazio aldetik. Alabaina, gizartearen garapena ezin da soilik boluntarioen eta hirugarren sektoreko erakundeen mende egon; beraz, administrazioak bere gain hartu behar du bere egitekoa. Horrez gain, diskurtso politikoaz harago, benetako aintzatespena eskatzen zaie herri-administrazioei, bai eta abian jartzen diren ekintzek irismen onargarri bat izatea ere.

Sentsibilizazioarekin eta erakartze-lanarekin loturiko proposamenak

- *Kanpainak eta publizitate-iragarkiak* egitea, boluntariotza eta pertsona boluntarioek egiten duten lana ezagutzera emateko. Publizitate-iragarki bakoitzak erakunde bat izan lezake ardatz, eta, horren bidez, zer egiteko duen, zer lan egiten duen, eta abar azal liteke.
- Ezjakintasunagatik *arbuioa sortzen duten egoera eta talde jakin* batzuen inguruan gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziazioa (dolua eta era horretako gaiak, toxikomanoak, presoak eta bestelako talde estigmatizatuak, eta abar).
- *Ekintza boluntarioa eta gizarte-sentsibilizazioa* sustatzea eta *hezkuntza-esparrutik, haurtzarora eta unibertsitateko aldia lehenetsiz*. Proposamen zehatzak bildu dira, besteak beste: boluntarioek emango dituzten hitzaldiak eta lantegiak antolatzea, ikastetxeetan hainbat ordu gordetzea gizarte-ekintzaren gainean sentsibilizatzeko eta erakundeek egiten duten lana ezagutarazteko, ikastetxeetan boluntariotza-orduak sustatzea (praktikako orduak dauden bezala). Ikasleek era

horretako ekintzak aisialdian egitearen garrantzia azpimarratu da, bestela betebeharrak gisa har bailitezke.

- *Gizarte-gabeziez eta hirugarren sektoreko erakundeen zailtasunez informatzea.*
- Boluntariotza sustatzea, *informazioaren eta komunikazioaren teknologiak* erabiliz.
- *Ekintza zehatzak* sustatzea *erakunde bateko eta besteko boluntarioen artean*, hirugarren sektoreko pertsonen artean ezagutza handitzeko eta boluntarioen artean ezagutza sortzeko.
- *Biztanleek borondatezko ekintzak egiteko nora jo dezaketen* informatzea.
- *A priori gizarte-izaerarik ez duten profil profesionalen artean (informatika, ingeniariaritzak, eta abar)* boluntarioak atzemateko eragitea, zer gizarte-arazo dauden eta arazo horiek hobetzeko zein erakunde ari diren laguntzen azalduta, profil horrek erakundeei nola lagun diezaiekeen azaltzen duten bideak eskainita, eta abar.
- *Boluntariotza* sustatzen jarraitzea, *boluntariotzako agentzien bidez*, baina, aldi berean, emaitzak exijitzea.
- *Boluntarioak atzemateko erakundeek ekimenak* laguntzea.

Boluntarioei aintzatespen formala egitearekin loturiko proposamenak

- Boluntarioei *merkataritza-onurak* eskaintzea: deskontuak sentsibilizazioa agertzen duten saltokietan, eta abar.
- Boluntarioentzat *zerga-onurak* izan daitezkeen laguntzea. Proposamen horren inguruan ez dirudi adostasun argirik dagoenik; izan ere, ekintzaren izaera altruista zalantzan jar daiteke, nahiz eta lagungarri ere izan daitekeen pertsona gehiago erakartzeko.
- *Borondatezko ekintza ofizialki aintzatestea* lana eskatzeko orduan balioko duen esperientzia gisa.
- *Erakundeetan egiten den prestakuntza ofizialki egiaztatzea* (tituluen bidez, unibertsitateko kredituen bidez, eta abar). Ez dago adostasunik proposamen horretan; izan ere, curriculumak lortzeko aldi gisa har liteke boluntariotza.

Erakundeen babesari loturiko proposamenak

- Erakundeei *baliabide eta lokal* gehiago ematea.
- Boluntarioen *prestakuntza-ekintzak* diruz laguntzea.
- *Boluntarioak sustatzeko diru-laguntzetan* eragitea.
- Beren ekimena sendotzeko baliabideak eskatzen dituzten erakunde berriak finantzatzea.
- Erakundeei beste aukera batzuk ematea artatu ezin dituzten kasuetarako (esate baterako, aisialdiko eta astialdiko erakunde batek beharrian bereziak dituzten gazteak dituenan: psikologoak, eta abar).

BOLUNTARIO IZAN DAITEZKEENAK: BOLUNTARIOAK SUSTATZEA

Herri-administrazioei bideratutako proposamenak

SENTSIBILIZAZIOA ETA ERAKARTZEA

-Bereziki zaugarriak diren taldeei buruz sensibilizatzea, eta horiekin lan egiten duten erakundeen lana ikusaraztea: batik bat hezkuntza-arloan (haurra eta unibertsitateko ikasleak).

-Boluntarioen lana eta erakundeei atxikitzeko bideak ikusaraztea.

-Profil profesional "ez sozialak" dituzten pertsonak erakartzea sustatzea (informatika, ingeniariaritz...).

ERAKUNDEEI LAGUNTZA EMATEA

-Erakundeetako boluntarioen zerrenda egitea.

-Boluntariotzako agentziak sustatzea.

-Erakundeei baliabide eta lokal gehiago ematea (prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea, esate baterako).

AINTZATESPENA

-Boluntarioek erakundeetan egiten duten lana ofizialki akreditatzea.

-Ekintza boluntarioarekin eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak aintzatestea, enplegu bat lortzeko esperientzia gisa.

Komunikabideak

Komunikabideak, izan dezaketen irismenagatik, boluntarioen irudia zabaltzeko eta hobetzeko eragile nagusietakotzat hartzen dira. Duten eragin mediatikoagatik, gizarte-erantzukizun handia ere eskatzen zaie. Alabaina, irudipena dago boluntariotzak "ez duela saltzen"; beraz, nekez izango du erabateko presentzia komunikabideetan.

Boluntarioen tratamendua eta irudia hobetzearekin loturiko proposamenak

- Komunikabideek boluntarioei ematen dieten *irudia* eta *tratamendua* hobetzea, halako moldez non boluntariotza ez den gertaera gisa tratatuko; albisteak pisu garrantzizkoa eta sakona har dezala; albisteak ez daitezela izan unean unekoak eta oportunistak, eta abar.
- Erakundeetatik bertatik datozen boluntarioen irudi egiati bat ematea.
- *Erantzukizun handiagoa hartzea* egunkari edo albistegien *online argitalpenetan idazten dituzten iruzkinen atalei dagokienez* (albiste jakin batzuen inguruan argitaratzen diren iruzkin arrazistak, eta abar).
- *Borondatezko ekintzari loturiko albisteetan lekukotasun* bat eskaintzea eta ez unean unekoa (Boluntarioen Eguna, Alzheimerren Eguna, eta abar).

Igorpen-bideekin loturiko proposamenak

- Ikus-entzule askoko edo irismen handiko uneak edo espazioak aprobetxatzea boluntariotza ezagutarazteko, boluntarioen edo erabiltzaileen esperientzia konkretuen bidez, boluntarioen lana gizarteari ezagutaraziko dioten istorioak eskainita.
- Gaur egun boluntariotzari eta erakunde jakin batzuek egiten duten lanari tarte bat eskaintzen dieten *irriti- eta telebista-saioetako emanaldiak* ugaritzea.
- Borondatezko ekintzaren berri ematea *tokiko hedabideetan*, pertsonengana modu hurbilago batean iristeko.

Sentsibilizazioarekin loturiko proposamenak

- Sentsibilizazio handiagoa azaltzea zaugarri diren edo baztertuta dauden talde edo egoera jakin batzuen inguruan.
- *Publizitate-kanpainak* egitea boluntario ospetsu eta ez ospetsuekin.
- *Erakundeen lana ezagutaraztea boluntarioei eurei ahotsa emanda*: helburuak, talde hartzaileak, bertan lan egiten duten pertsonak, beharrianak, eta abar.

Komunikabideen konpromisoarekin loturiko proposamenak

- *Konpromiso handiagoa hartzea borondatezko ekintzarekin eta ekintza hori ikusaraztearekin. Horretarako, beharrezkoa da komunikabideen ildo editorialaren, filosofiaren edo ideien eta kode deontologikoaren parte izatea.*
- Boluntarioak *modu altruistan* sustatzea.
- *Erraztasunak ematea erakundeak komunikabideetara erraz iritsi ahal izan daitezen*, batez ere erakunde txikienen kasuan.
- Erakundeetara gerturatzea, erakundeak izan beharrean gerturatzen direnak.

BOLUNTARIO IZAN DAITEZKEENAK: BOLUNTARIOAK SUSTATZEA

Komunikabideei bideratutako proposamenak

TRATAMENDUA

-Albiste oportunistak saihestea eta boluntariotzarekin lotutako albisteak sakon jorratzea.

-Boluntariotzari buruzko informazioa egiazkoa dela bermatzea, erakundeak eta/edo boluntarioak hartuta informazio-iturri.

SENTSIBILIZAZIOA

- Ekintza boluntarioa gizarteari hurbiltzea, eta, horretarako, esperientzia zehatzak ezagutaraztea ikusle asko biltzen diren tokietan, eta kanpainak egitea pertsona famatuekin eta famatuak ez direnekin.

-Gaur egun boluntariotzari eta erakunde jakin batzuek egiten duten lanari tarte bat eskaintzen dieten irratia- eta telebista-saioteko emanaldiak ugaritzea.

ERANTZUKIZUNA

-Konpromiso handiagoa hartzea borondatezko ekintzarekin eta ekintza hori ikusaraztearekin. Horretarako, kode deontologikoan argi eta garbi adieraztea.

-Boluntarioak modu altruistan sustatzea.

-Erraztasunak ematea erakundeak komunikabideetara erraz iritsi ahal izan daitezen, batez ere erakunde txikiak direnean.

- Erantzukizun handiagoa hartzea egunkari edo albistegi online argitalpenetan idazten dituzten iruzkinen atalei dagokienez (esate baterako, iruzkin arrazistak edo matxistak ez argitaratzea).

Erakunde eta boluntarioak

Halaber, boluntariotzako erakundeek garatzekoak diren zenbait proposamen ere jaso ahal izan ditugu; honako hauek hain zuzen:

- Borondatezko ekintza informazio- eta prestakuntza-hitzaldien bidez ezagutaraztea (garuneko paralisia zer den informatzea eta abar), bai eta ingurune hurbilean ezagutaraztea ere.
- Inguruko pertsonen gonbit egitea egun batez boluntario gisa parte har dezaten.
- Gainerako erakundeak eta egiten dituzten jarduerak ezagutzea, gizarteari hirugarren sektorearen ikuspegi globalago bat eskaini ahal izateko.
- Boluntarioak batzea, presentzia handiagoa izateko, elkar gehiago ezagutzeko eta boluntariotza ezagutarazi ahal izateko.
- Boluntarioak prestatzea, komunikabideetan presentzia handiagoa izateko.

B- BOLUNTARIO ERAKUNDEEN ERRONKAK, BOLUNTARIOEN IKUSPUNTUTIK

- ▶ Zuzendaritza- eta kudeaketa-lanetan inplikazio handiagoa izango duten boluntarioak lortzea.
- ▶ Boluntarioak erakartzea, batez ere pertsona gazteak; belaunaldien arteko erreleboa eta hainbat erakunderen bizirautea bermatzeko.
- ▶ Kudeaketa boluntarioen profil guztietara egokitzea, ibilbideak malgutzea. Hobekuntzak txertatzea, lanak, rolak eta eginkizunak zehazteari dagokionez.
- ▶ Parte-hartzea sustatzea, eta boluntariotza erakundeen xedearekin bat indartzea.
- ▶ Maila eta dimentsio guztietako prestakuntza sustatzea.
- ▶ Boluntarioen nekea, arnasa hartzeko beharra eta muga pertsonalak kontuan hartzea.
- ▶ Hainbat erakundetako boluntarioak elkar ezagut daitezen sustatzea eta, batasunetik abiatuta, gizartearen sentsibilizazioan eta boluntario berriak erakartzeko lanetan parte har dezaten sustatzea.

4. 2013-2016 aldirako erronkak, ekintza-ildoak eta lehenetsuneko helburuak

Boluntariotzaren erronkak 2020ra arte.

EAEk bere egiten ditu 2012an zehar Estatu mailan jorratu diren erronkak. Jardun hori Espainiako Boluntariotza Plataformak gidatu du eta euskal erakundeek zuzenean edo zeharka parte hartu dute.

Estrategia honek partekatutako proposamentzat identifikatu zituen hamarkada honetarako honako proposamen hauek:

- Etorkizunera begira, **printzipio demokratikoetan eta printzipioen balioetan sustraitutako boluntariotza** proposatzen dugu. Boluntariotza horrek honako premisa du abiapuntu: guztiontzako onura norbanakoarentzako onuraren gainera dago, eta gizaki guztioi dagokigu hura zaintzea eta defendatzea. Herritar aktiboen markoan taxututako boluntariotza proposatzen dugu, partaidetza sustatzen duen komunitatearen dimentsioa garatzea; kontzientziak lotzen, elkartzen eta, ondorioz, mugiarazten dituen boluntariotza, borondateak eta biderkatzeko baldintzak sorrarazten dituen; guztia ere, giza gaitasunak modu solidarioan hedatuta, itxaropena eta baikortasuna transmitituta.
- **Boluntariotza plurala** proposatzen dugu: **inspirazioan, adierazteko moduan eta jarduteko eremuetan** anitza. **Dimentsio askotariko boluntariotza**, pertsona bakoitzak bere ekintzei esanahi bat edo batzuk eskainiko diena: batzuentzat konpromisoaren garrantzia eta erantzunkidetasuna da; beste batzuentzat pertsona eta gizartean aldaketak bilatzen dituen dimentsio eraldatzailea; beste batzuentzat sensibilizazio eta konpromisorako deia; beste batzuentzat adibidearen bitartez egindako pedagogia; beste batzuentzat dimentsio erlazionalaren sendotasuna aldarrikatzea; beste batzuentzat pertsonen lekukotasun-laguntza ematea, eta abar.
- Etorkizunean **boluntariotza zabaldu egin behar dela** ulertzen dugu, **baina batez ere sakondu egin behar da. Hori dela eta, boluntariotza ireki eta parte-hartzailean sinesten dugu, klase, kultura eta belaunaldi-artekoa izango dena.** Elkarrengana hurbilagokoak diren harremanak eta bi noranzkoko ikuspegia dituen boluntariotza nahi dugu, garrantzitsuena elkarrekiko erantzukizunak izatea helburu duena, pertsona batek besteekin eta guztiok komunitatearekin konpromisoak dituen; batzuek eman eta besteek jaso beharrean, guztiok eman eta guztiok jasotzen dugun komunitatea sortzeko. Ez dugu nahi lerro banatzaileak marraztea ardatz duen boluntariotzarik, aldiz, sinergietan eta bestelako partaidetza moduekin harremanetan sakonduko duena nahi dugu, hazten doazen beharrezkoen eta inork jorratzen ez dituen arazoei erantzun goiztiarra emanez.
- **Boluntariotzak agenda politikoan protagonismo handiagoa behar duela** ulertzen dugu: aurre-politikan (gizarte-balioak lantzen), xede-politikan (gizartearen xedeetan sakontzen) eta politikan (antolatutako botereari dagokionez). Hori dela eta, boluntariotzak diskurtso politikoan eragin behar du, aldi berean botere politikoarengandik independentea izanda. Eragin horren oinarria izango dira herritarren konpromisoa, herritarren parte-hartzea, herri-mugimenduekiko errespetua eta babesa, guztiontzako onura sustatzea eta gizarte zibilaren eginkizuna indartzea.
- **Behar bezalako araudia eskura izanda, ekintza boluntarioa onesteari laguntzeaz gain, horren beharrezko antolamendu eta normalizazioari ere laguntzen zaio.** Horregatik, uste dugu boluntariotzaren, asoziazionismoaren eta hirugarren sektorearen gaur egungo arautzea hobetu beharko litzatekeela, alderdi askotan gainezka egin baitu errealitateak berak bultzatuta. Arautze horrek beharrezkoa dena jasoko du, baina hertsia behar du izan, ezin baititu, araudiaren ikuspegitik, ekintza

boluntarioaren adierazpide ezberdinak gehiegi mugatu, ezta esparru horretako araudia gehiegi bete ere; arau guztiek ez dituzte halaberrez txertatu behar bere esparruan boluntariotzako adierazpide eta praktika guztiak, instituzionalizatuak baino ez ditu jasoko.

- Behar bezala ongarritutako lurra da boluntariotzari laguntzeko modurik onena. **Gizarteak boluntariotza gehiago izango du, herritar-balio eta balio solidarioetan hezten badu, besteen beharrizanekiko sentibera baldin bada, onura publikoen defentsan herritarrak mugiarazten baditu**, kultura, historia, arte, musika, ingurumenaren zaintza, aisialdi, garapen pertsonal edo osasunarekiko interesa pizten badu. Hori dela eta, beharrezkoa da sentsibilizazioa indartzea, elkartasun-kultura garatzea, boluntariotza handitzeko espazioak sustatzea, boluntariotza-modu berriak suspertzea eta boluntarioen ekintza lagundu, indartu eta onestea.
- Jakin badakigu **prestakuntza funtsezko elementua dela etorkizunean kalitatezko boluntariotza eskuratzeko**, eta horregatik proposatzen dugu hori indartzea, baina, gainera, berrorientatu egin behar da, parte-hartzaileagoa izan, boluntarioen arteko harremanean oinarritu, gaitasunen aintzatespenetik abiatu eta balioak indartzeko; azken batean, boluntariotzarentzat proposatzen dugun orientazioarekin bat egoteko.
- Boluntariotzaren **etorkizun irekian sinesten dugu, herri-mugimendu eta herritarren ekimenekin estuki lotuta eta konprometituta egon dadin**, eta gizarte-dinamiketarik kanpo uharte batean isolatuta gelditzea ekiditeko. Horretarako, erakundeen proiektio irekiagoa behar da, baita jarduteko espazio komunak bilatzeko ahalegin handiagoa eta bertan boluntarioen inplikazio aktiboagoa ere.
- **Administrazioek boluntariotzaren sustapen, bultzatze eta babesean eginkizun aktiboa izatearen aldeko apustua egiten dugu**. Administrazioek boluntariotza sustatzen lagundu behar dute, baina berau gidatu gabe, babesa eman baina berau hertsatu gabe; sentsibilizazioan lagundu eta ekintza boluntarioaren eta boluntarioen aintzatespen publikoa egitea; arautu eta antolatu egin behar dute, baina murriztu edo ito gabe; lagundu egin behar dute, baliabideak eskaini, prestakuntza sustatu eta borondatezko ekintza egiteko espazioak eskainita; borondatezko erakundeei lagundu behar diete, borondatezko ekintza bideratzen lagundu, partaidetzarako eta elkarrizketarako espazioak sortu eta boluntariotzari buruzko informazioa eta ezagutza hobetu.
- **Toki-administrazioak funtsezko eginkizuna du ekintza boluntarioaren laguntzan**; udalek, gizartearen gertuko administrazio diren aldetik, jarduteko ereduak beharko lituzkete izan eskura, borondatezko ekintza eta berau sustatzeko tokiko mailan behar bezalako erakunde-esparruak indartzeko. Boluntariotzaren laguntza politiko eta administratiboki gizartearen edo herritarren parte-hartzean beharko luke kokatu, eta hortik abiatuta sustatu beharko lirakeke tokiko partaidetzarako plan eraginkorrak.
- Beharrezkoa da ikuspegia aldatzea, administrazio eta boluntariotzako erakundeen arteko harremanetan, baita, oro har, hirugarren sektorearekiko harremanetan ere. GKEak harreman-kapital eta elkarte-sarea sortzen laguntzen duten espazio gisa ikusi behar dira, eta ez administrazioaren luzapen gisa, hau da, administrazioaren izenean berau iristen ez den espazioetan zerbitzuak ematen dituen erakunde gisa. **Boluntariotzako erakundeek eginkizun garrantzitsuagoa izan behar dute interes publikoen kudeaketan, eta kontsultatu egin behar dira politikak diseinatzean eta horien jarraipena eta ebaluazioa egitean.**
- **Hirugarren sektoreko erakundeek sakoneko eraldaketa-prozesua egin behar dute, boluntarioen parte-hartzea eta ahalduntzea sustatuz**. Beren ahuleziak gainditu behar dituzte, gizarte-oinarriaren galera, barneko aniztasun eta partaidetza eza eta boluntariotzaren kudeaketa zorrotza barne. Horretarako, beren arteko eta beste gizarte-eragileen arteko lankidetzak indartu behar dute, baliabideak, tresnak eta lan-metodologiak berriro eta partekatu, elkarte-dimentsioari osotasuna eman eta laguntza-prozesuak hobetu.

- **Hezkuntza boluntariotza sustatzeko funtsezko elementua da.** Boluntariotzari lotuta doazen balioek presente egon behar dute hezkuntza-zikloaren fase guztietan. Hori dela eta, hezkuntza-sistemak balio, elkartasun, herritarren partaidetza, herritarren kontzientzia, ingurumenarekiko eta ahulenekiko errespetuen heziketan sakondu behar du.
- Boluntariotzarekin konpromiso handiagoa duten komunikabideak behar ditugu. Komunikabideek herritarrak sentsibiliza ditzakete gizarte-interesa duten gaietan, gizarte, ingurumen eta kultura-arazoen berri eman dezakete, bai eta horiei herritarrek emandako erantzunaren berri ere, boluntariotzari buruzko behar bezalako informazioa helarazi eta GKEekin aliantzak ezar ditzakete bertako profesionalak gaitzeko, baita ekimen partekatuak abiarazteko ere.
- **Enpresek funtsezko eginkizuna dute boluntariotzaren babesean, baita berau erakarri eta sustatzeko espazio gisa ere.** Enpresa-munduari buruz ari garenean, garrantzitsua da kontuan hartzea mundu hori anitza dela. Boluntariotza enpresaren baitan ulertzeko modu batzuek, "boluntariotza korporatiboak" deitzen direnek, badituzte kontraesan eta kritikarako hainbat arrazoi. Hala ere, badaude enpresa eta GKEen arteko lankidetzan jardunbide egokien kasuak, pertsona eta kolektibo zaugarrien alde egindakoak. Garrantzitsua da irabazi-asmoak dituzten eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen arteko harremana elkarrenganako errespetuan, ekitatean, elkarriketan, gardentasunean eta lankidetzan oinarritutako esparru kooperatiboan ezartzea.

Uste oso horietatik abiatuta, "erronka-dekalogo" hau onartuko da, ekintza boluntarioan eta gizartearekin beharrezko loturan benetako aurrerapena egingarri bihurtzeko.

AURRERAPEN KUALITATIBORAKO HAMAR ERRONKA

1. **Beharrezkoa da boluntariotzari buruzko ezagutza eta informazioa hobetzea.** Horretarako, ikerketa-zentroek eta datu estatistikoak biltzen dituzten zentroek (...) beren helburuen artean txertatu behar dute, boluntariotzaren errealitateari buruzko informazio etengabe eta eguneratua eskainiz.
2. **Boluntariotzari buruzko eskumen publikoek parte-hartze sozialaren esparruan kokatu behar dute.** Hori bereziki garrantzitsua da toki-administrazioan, gizartearen eta herritarren parte-hartzerako zinegotzigoak sustatu beharko bailirateke bertan, eta hortik abiatuta tokiko partaidetzarako plan eraginkorrak bultzatu; esparru horretan kokatu beharko litzateke politiko eta administratiboki ekintza boluntarioa. Autonomia eta Estatu mailan, boluntariotzari buruzko gaiak ezingo dira, inondik inora ere, gizarte-gaietara mugatu.
3. Boluntariotzari buruzko araudi berria behar da Estatu mailan. Boluntariotzari buruzko araudia, alderdi askotan, zaharkitua gelditu da eta askotariko mugak ditu; boluntariotzaren eta horren fisonomiaren gaur egungo errealitateak gainezkarazi du, eta askotan, autonomia mailako araudiek gainditu dituzte, hutsune asko ere aurkitu direlarik. **Beharrezkoa da legezko esparru berri bat diseinatzea, XXI. mendearen hasierako boluntariotzaren errealitatearen muina jasoko duena.**
4. **Hezkuntza-zikloaren fase guztietan sustatu behar dira boluntariotza eta horren baitako balioak.** Hezkuntza-zikloan zehar, ezagutzak bereganatzeaz gain, praktikatzen ikasteko gaitasunak ere bereganatzea da. Hori ikastetxeko proiektuan eta hezkuntza-curriculumean zeharka egin behar da, baita berriaz ere hainbat ikasgairen bitartez, hala nola, "Herritartasunerako heziketa", etorkizuneko "Heziketa zibiko eta konstituzionalaren" bitartez. Ikaskuntza-zerbitzuaren gisako formulak txertatzeak helburua indar dezake.

5. Beharrezkoa da prestakuntzaren beste orientazio bat proposatzea, boluntariotzaren erronka, profil eta modu berrieekin bat joateko. **Prestakuntzaren aldeko apustuak boluntariotzari kalitate eta sakontasun handiagoa ematen lagunduko du.** Bertan elkarreak hertsiki aritu beharko lirateke elkarlanean, berau egokitu, laguntzarako prozesuak indartu, erantzukizun-zentzua sustatu, konpromiso herritarrari lotutako balioetan sakondu. Edonola ere, horrez gain, elkarreak antolatzeke eta kudeatzeko ereduak ere aldatu behar dira.
6. **Boluntariotzak pisua eta garrantzia hartu behar du agenda politikoan.** Boluntariotzak, beste herritarren partaidetza eta konpromiso motekin batera, eta hirugarren sektorearen jarduteko esparruaren baitan, herritarren elkarrizketaren parte eta protagonista izan behar du, baita botere publikoekin elkarrizketan eta agenda politikoaren iritzi eta eraginean ere.
7. **Funtsezko aldaketak behar dira gizarte-erakundeen baitan. Hirugarren sektoreak** sakon hausnartu behar du bere ahuleziak gainditzeari buruz, gizarte-oinarriaren galerari, barneko aniztasunari eta partaidetza ezarekin lotutakoari buruz, baita karguen txandakatze eskasari eta boluntariotzaren kudeaketa zorrotzari buruz ere. Gizarte-erakundeek, beren arteko eta beste gizarte-eragile batzuen arteko lankidetzari indartu behar dute, bai eta honako hauek egin ere: baliabideak, tresnak eta lan-metodologiak berriitu eta partekatzeke ahalegina egin, elkarre-dimentsioari bete-beteko zentzua eman eta laguntza-prozesuak hobetu, elkarren artean lotuago egon eta laguntza-prozesuak hobetu.
8. **Boluntariotzak eta berau sustatzen duten erakundeek gehiago eta hobeto komunikatu behar dute.** Boluntariotzaren gizarte-irudia ez dator bat benetakoarekin eta, batzuetan, desitxuratu egiten da; boluntariotzak gizarte-irudiarri eta pertsonari ematen dien balioaren gaineko ezjakintasuna da nagusi. Boluntariotzak aliantzak bilatu behar ditu komunikabideekin, ezagunagoak egiteko, eta berau sustatzen duten erakundeak eta bertako boluntarioak komunikazioaren aktore eta protagonista bihurtzeko; IKTek eskaintzen dizkiguten aukerak aztertu eta aprobetxatu behar dira.
9. **Ezinbestekoa da boluntariotzako erakundeentzako egonkortasun eta babes handiagoa eskuratzea.** Herri-administrazioek erakunde horiek duten funtsezko eginkizuna ulertu behar dute, baita egiten duten gizarte-ekarpena ere, eta, ondorioz, horiek aintzat hartzeaz gain, beren eginkizuna behar bezalako baldintzetan egiteko beharrezko bitarteko eta laguntzak ere erraztu egin behar dizkiete. Gaur egungo finantzazio-sistemak –epe laburrerakoak dira, eta prekarioak–, formula egonkor eta eraginkorragoei eman behar die bide.
10. **Boluntariotzako sare, agentzia eta laguntzarako zentroak boluntario mota orotara irekiak izan behar dira.** Datozen urteetarako boluntariotza mota anitzetara irekiak egotea eta haien ordezkari bihurtzeko erronka dute aurrean eta, beraz, arreta berezia eskaini beharko diete boluntariotzaren joerei eta lurraldetasuna eratzen eta parte-hartze sozialerako beste formekin lankidetzarako-espazioak errazten laguntzeari. Herri-mugimenduetara irekitzeko ahalegina ere egin behar dute, baita zeharka, beste alorretako plataforma eta sareekin, modu horizontalean eta lurralde-sareei laguntzen lan egitea ere, politika-elkarrizketa eta -eraginerako gaitasuna hobetuz, barne-partaidetza indartuz eta ezagutza eta berrikuntza erraztuz.

SAKONDU BEHARREKO BESTE GAI BATZUK

- Beharrezkoa da **enpleguaren eta boluntariotzaren arteko harremani buruzko premiazko hausnarketa eta eztabaida publikoari** ekitea. Boluntariotzak ezin duela enplegua deuseztatu abiapuntutzat hartuta, gaur egungo dinamikek, bereziki aurrekontu-murrizketa eta langabezia-tasa altuen testuinguruan, nahasgarri bihur ditzakete boluntariotza eta ordaindutako enpleguaren arteko mugak, eta bata eta bestearen balioa gutxitzeko arriskua dago.
- Beharrezkoa da **erantzukizun publikoen eta boluntariotzaren erantzukizunen arteko harremani buruzko premiazko hausnarketa**. Boluntariotzak, halaber, gai publikoekin izan behar duen konpromisotik abiatuta, publikoaren esparruari dagozkion erantzukizunak boluntariotzaren esku uzteko arriskua dago.
- Boluntariotza mota berriei eta boluntariotzaren kulturen gertatzen diren aldaketei arreta eskaintzea proposatzen da. Garai digitalean sartzeak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak ezartzeak, ezer baino lehen, kulturaren iraultza du ondorio, eta boluntariotza ez da salbuespena. IKTen bitartez egindako boluntariotzako jardunak aldaketak dakartza boluntariotzako politikentzat, erakundeek egiten duten kudeaketarentzat, arautze-dimentsioarentzat, eta abar. Eta horiek aztertzea beharrezkoa da.
- Eskaeraren eta eskaintzaren artean areagotzen ari den bat ez etortzearen arrazoiak aztertzea proposatzen da. Beste era batera esanda, boluntarioek dituzten itxaropen, desio eta kezken eta boluntariotzako erakundeek pertsona horiei eskaintzen dietenaren arteko bat ez etortzea. Hausnarketa horren baitan, eta joera horren ondorio gisa, gomendagarria da erakundeetatik kanpo sortzen eta hazten ari diren boluntariotza-modu berrien inguruan ere hausnartzea.
- Beharrezkoa da enpresa-boluntariotzaren inguruan sakontzen jarraitzea. Garrantzitsua da irabazi-asmoa duten erakundeek eta irabazi-asmorik gabekoen arteko harremana elkarrekiko errespetu, ekitate, elkarrizketa, gardentasun eta lankidetzako esparru kooperatiboan ezartzea; elkarri onura egiteko aukerak aztertzeke, gizartean eragin positiboa batera sortzeko eta boluntariotza batzuen alde erabiltzeko asmoak ekiditeke.
- Hainbat alorretan jarduten duen boluntariotzaren arteko eta boluntariotza-modu berrien arteko interkonexioak eskaintzen dituen aukerak aztertu behar dira. Ildo horretatik, oso garrantzitsua litzateke lankidetzarako formulak sustatzea, hainbat alorretan gizarte-boluntariotza sendoagoa lortzeko: komunitatean, hezkuntzan, kulturen, kirolean, lan-munduan, ingurumenean, eta abarretan.
- Gaur egun boluntariotzaren eta herri- eta gizarte-mugimenduen artean dagoen harremanaren inguruan hausnartzea proposatzen da. Pertsona boluntarioak izan dira mugimendu horietako asko bultzatu dituztenak, eta badirudi deskonexio nabarmena gertatzen ari dela boluntariotzaren eta mugimenduen artean, eta, beraz, komunitate-dimentsioa galtzen ari da.

Ekintza-ildoak

Azterketa eta erronka horiek abiapuntu hartuta, eta aurretiazko boluntariotza-planei jarraiki, 2013-2016 aldirako Euskal Estrategia honen egitura osatzeko hiru ildo estrategiko proposatu dira:

1. ildo estrategikoa:

Ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa den herritartasuna eraikitzea:

Ezinbesteko xedea da, oraindik ere, benetako elkartasun- eta partaidetza-kultura sustatzea, gizarte osoaren, ekintza boluntarioaren eta gizarte-beharrizanei erantzuna ematen laguntzeko beharraren arteko zuzeneko lotura egonkorra ezartzeko. Zalantzarik gabe, erronka horren funtsezko alderdia da orain eta hemen gure gizartearen hobekuntzan inplikaturako milaka pertsona eta talderen eginkizunari gizarte-onespena ematea.

2. ildo estrategikoa:

Elkarte-sare dinamiko baten garapena sustatzea, ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialaren erronka berriei erantzuna emateko gai izango dena:

Gizarte-erakundeak dira boluntariotzaren partaidetza gauzatu eta horri itxura ematen dioten egiturak, eta ezinbestekoa da pertsona boluntarioen arreta eta dinamizazioari lotutako prozesu guztiak babesteko neurriak giltzatzea, parte-hartze sozialeko esperientzia arrakastatsu eta eraginkorrak gauzatzeko funtsezko faktore gisa. Aldi berean, boluntariotzako erakundeak ere babestuko dira, haien iraunkortasun, gardentasun, modernizazio eta komunitate-dimentsioari eusteko.

3. ildo estrategikoa:

Boluntariotzaren fenomenoaren ulermena normalizatzea, gizarte- eta komunitate-eginkizuna nabarmenduz eta berau bultzatzen duten gizarte-eragileen giltzate- eta koordinazio-esparruak indartuz.

Lankidetzaren, harreman eta komunikazio-sare eraginkor baten eraikuntzan EAEko esparru guztietan aurrera egitea da, eta, horretarako, hirugarren sektoreak berak duen egungo egituraketa maila (sareak, federazioak, eta abar) eta gure komunitatean sendotzen ari den herri-administrazioekin elkarriketarako espazioen (herritarren elkarriketarako mahaiak, kontseiluak, eta abarren) aldi bereko aurrerapena aprobetxatzea.

Helburu orokorrak

2013-2016 aldirako **Boluntariotzaren Euskal Estrategiak** honako helburu orokor hauek ditu:

- 1.- Boluntariotza eta parte-hartze soziala sustatzea, EAEko auzo eta udalerrri guztietan parte-hartzearen eta elkartasunaren kultura bultzatuta.
- 2.- Boluntarioen jardunari laguntzea, elkarre-egitura eta sareak lagunduz, bertakoen ahalduntzea sustatuz eta herritarrei zabaltzeko aukera eskainiz. Horretarako, partaidetza eta jardunbide egokiak errazteko behar bezalako baliabideak eskuratzea.
- 3.- Herritarrak eta gizarte-eragileak boluntariotzaren balioen eta ekintza boluntarioaren garrantziaren inguruan sentsibilizatzea, herritartasun aktiboa eraikitzeko.
- 4.- Boluntariotzaren gaineko pertzepzioa kontzeptu- eta terminologia-ikuspuntutik normalizatzea; erakundeen ekintzaren eta hainbat gizarte-eragileren arteko harremanaren subjektu irmo eta diziplina anitzeko gisa integratzea.
- 5.- Ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialaren errealitatea ezagutaraztea, horren aniztasuna, ezaugarriak eta adierazpide ezberdinak erakusten dituzten ikerketa eta jardueren bitartez.

Estrategia hau ezarri eta lau urtetara egingo den ebaluazioaren oinarria izango da helburu orokor bakoitzari lotutako berariazko alderdi neurgarrien garapen maila.

Eragile guztientzako orientazioak

Jarraian, orientazio eta/edo gomendio batzuk emango ditugu boluntariotzaren arloan identifikatutako eragile bakoitzarentzat, horietako bakoitzak betetzen duen zeregina eta horien arteko koordinazioa argitzeko helburuarekin, proposatutako ildo estrategikoak oinarri hartuta.

Identifikatutako eragileak honako hauek dira:

- Boluntarioak dituzten gizarte-erakundeak eta horien sareak
- Boluntariotzaren lurralde- eta toki-agentziak
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua
- Udalak eta bertako taldeak
- Foru-aldundiak
- Eusko Jaurlaritza
- Beste eragile batzuk

BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA

Ekintzak behar bezala garatzeko gakoetako bat da Boluntariotzaren Euskal Kontseilu **dinamikoa eta parte-hartzailea** edukitzea. Horretarako, proposatzen da **bide-orri komun** batetik abiatzea eta **lidergo indartsu** bat edukitzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gauzatua, Familia eta

Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren bitartez. Zehazki, lidergoa Kontseiluaren kudeaketa eta dinamizazio etengabearen ere gauza daiteke, eremu hori indartuta eta zainduta.

Horrela, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua ideiak, premiak, zalantzak eta kezak adierazteko benetako **truke-foro** gisa ikusi eta biziko da. Hortik abiatuta, Kontseiluak lehentasunak identifikatuko ditu, kezka horien inguruan jarduteko moduari buruz EAEko gizarte-erakundeei orientatzeko gomendioak eta jardun-proposamenak emanez.

Azkenik, egin beharreko funtsezko hausnarketa-elementu bat da **"boluntariotzaren" eta herritarren parte-hartzearen definizio komun eta partekatu** batean aurrera egitea, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren lan-batzordeen esparruan. Era berean, oso garrantzitsua da Kontseiluaren esparruan **ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialaren errealitate, bilakaera eta erronken inguruan eztabaidatzea eta horiek aztertu eta sakontzea.**

BOLUNTARIOTZA AGENTZIAK

Garrantzitsua da ekintza boluntarioan bildutako eragileak argi eta garbi ikustea, boluntarioei eta boluntariotza-agentziei lehentasuna emanez, hartzaile gisa eta **subjektu aktibo** gisa. Kontsultatutako eragile guztien eskaera bat da boluntariotzari lotutako lana eta Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren garapena boluntariotzako EAEko lurralde-agentzietan zentralizatzea (Bolunta, Gizalde, etab.), baita tokiko gainerako agentzia edota zentroetan ere, herri-administrazioen laguntzarekin.

Ildo horretatik, lehentasunezkoa da 2012tik desagertu den Arabako Erdu agentziaren hutsunea berriz betetzea aurreikustea.

EAEko boluntariotzako agentziek gizarte-taldeengana eta herritarrengana hurbiltzeko berariaz lan egitea proposatzen da, eta lehentasunezko bi helburu lortzeko: **Hirugarren sektoreko erakundeak ahalduntzea**, laguntza teknikoaren, prestakuntzaren eta sareak sortzearen bitartez, eta **herritar aktibo eta kritikoak sortzeko** helburuarekin lan egitea.

Azkenik, EAEko boluntariotza-agentzien eta toki-administrazioen arteko harremana eta lana garatzea gomendatzen da eta, kasu batzuetan, baita boluntariotza sustatzeko eta laguntzeko toki-zentroen artekoa ere.

UDALAK ETA BERTAKO TALDEAK

Toki-administrazioak benetako **lotunea dira gizartearen eta udaleko elkarten artean**, boluntariotza bultzatzeko, elkarte-sarea laguntzeko eta herritarrek parte hartzeko ekintzak susta baititzakete.

Ikuspegi horretatik, EAEko udalek eta bertako taldeek zeregin garrantzitsua bete dezakete tokiko parte-hartze prozesuen dinamizatzaile eta sustatzaile gisa, parte-hartzeari eta boluntariotzari buruzko arloetan aholkuak emanez. Horretarako, udal-erakundeetan boluntariotzari buruzko ezagutza duten trakzio-eragile argiak identifikatzea gomendatzen da.

Udalentzat eta bertako taldeentzat, lehentasunezko honako ekintza-ildo hauek proposatzen dira:

1. **Boluntariotza-proiektuak tokiko mailan nabarmentzea** babestea, ekimen horietan herritarren inplikazio handiagoa bilatuz, informazioaren eta sentsibilizazioaren bitartez.

2. Elkarte-sarea eta sareko lanaren artikulazioa indartzea. Prestakuntzaren hobekuntzan lan egin nahi da **boluntariotzako proiektuen eta erakundeen barneko eta kanpoko kudeaketa hobetzeko tresna gisa**, udalaren eta elkarte-egituraren artean, alde batetik, eta elkarte-egituraren beraren artean, bestetik, lankidetzaz-estrategiak eratzea sustatuz.
3. **Boluntariotzari gizarte-onarpenera ematea**, gizarte-kohesioari egiten dion ekarpena balioetsita, eta boluntariotzaren mezua eta balioak mantenduz gizartean.
4. **Tokiko irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntza tekniko eta ekonomikoa ematea**, diru-laguntzen bitartez, hitzarmenen bitartez, lokala lagatzearen bitartez, eta abar.

FORU ALDUNDIAK

Asmoa da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek hiru lurralde historikoetako **boluntariotza-agentziak babesten, sustatzen eta indartzen** jarraitzea, lankidetzaz-hitzarmenen bitartez, boluntariotzaren arloan egiten duten lana indartzeko helburuarekin.

Era berean, **irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzeko lanarekin jarrai daiteke beren jarduerak finantzatuta**, alor horretan eskumena duten sailen bitartez, hain zuzen ere hiru lurraldeetako gizarte-erakundeen bitartez ekintza eta parte-hartze boluntarioa indartzeko helburuarekin. Balioetsi beharko litzateke, halaber, udalei zuzeneko laguntzak ematea, beren udalerrietako elkarte-mugimenduari laguntza emateko neurriak aktibatuz.

Garrantzitsua da, orobat, foru-aldundiek boluntariotza jarduteko zeharkako alor gisa aintzat hartzea, parte-hartze sozialari dagozkion ekintzak egiteko berariazko langileak dituen, eta gizarte-politikekin osagarritasuna bilatuta.

Amaitzeko, proposatu da aldundiek **Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan ordezkari eta parte-hartzea** gauzatzen jarraitzea, baita Boluntariotzaren Euskal Estrategian jasotzen diren ekintzak bultzatzen jarraitzea ere.

EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako sailek **zeregin aktiboa betetzen dute Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kide gisa**. Horretaz gain, subjektu estrategikoak dira Boluntariotzaren Euskal Estrategia honetan bildutako ekintza batzuei eusteko eta jarraitutasuna emateko unean.

Era berean, Eusko Jaurlaritza protagonista izan daiteke **ekintza boluntarioaren balioak hedatzeari** dagokionez, EAEko biztanleria hainbat eremutatik parte-hartzera animatuz: gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, lankidetzaz, kultura, komunitate-garapena, herritarren partaidetza, ingurumena, eta abar.

Ildo horretatik, funtsezkoa da ekintza boluntarioaren aintzatespena eta herritartasun aktiboa bultzatzeko **berariazko jarduerak sustatzea**.

Halaber, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kide diren Eusko Jaurlaritzako sailtako bakoitzean boluntariotzaren eremua benetan eta sakonki ezagutzen duen norbait izateko premia ikusi da, Familia eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzarekin koordinatuta.

Bestalde, garrantzitsua da adieraztea zeintzuk diren Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren eskumeneko eginkizunak, hori baita boluntariotzaren arloko organo arduraduna. Zeregin hauek ditu:

- ▶ **Boluntariotzako erakundeen Errolda Orokorra** kudeatu eta antolatzea, eta horren egokitasuna eta elkarre- eta fundazio-erregistroekin behar duten lotura balioestea.
- ▶ **Boluntariotzaren programen katalogo publiko bat eratzea**; Autonomia Erkidegoaren eremuan garatzen diren programen edukia bilduko du.
- ▶ **Boluntariotzari buruzko dokumentu-fondo bat eta datu-base bat** sortzea, dauden fondo guztiak koordinatzeko.
- ▶ Boluntariotzako proiektu jakin bat egiten duten erakundeek eskatzen duten beharrezko **aholkularitza teknikoa eta lankidetz**a ematea.
- ▶ **Boluntariotzako elkarten parte-hartzea babestu eta sustatzea Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren bitartez**. Adierazitako kontseiluaren lidergoa eta animazioa Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren ezarpenean eta Zuzendaritzaren ardura duten ekintzetan, gainerako sailek gai hori beren gain hartzea sustatzeaz gain.

5.- Jarduera-oinarriaren eta egutegiaren proposamena

Estrategia honek izaera orokorreko ekintza sorta bat proposatzen du oinarri gisa, EAEn boluntariotzarekin lotutako eragile guztiek proposatutako erronkei erantzuna emateko interesgarria izan daitekeena. Ikus daitekeenez, lan-plangintza honek hainbat jarduera itxi eta mugatu nahasten ditu jarduera irekiekin. Azken jarduera horiek Boluntariotzaren Euskal Kontseilua bera eta eragile-taldea garatzen joango diren aurrerapen eta ebaluazioek mugatuko dituzte.

Hona hemen hautatutako 31 jarduera-oinarriak, motaren arabera bilduta:

Euskal Plana - Boluntariotzaren eta Parte-hartze Sozialaren Euskal Estrategia

01 - Boluntariotzaren eta Gizarte Partaidetzaren Euskal Estrategia (2013-2016). 2013ko uztailean amaitua.

02.- Planaren gizarte-eraginaren ebaluazioa. Legealdiaren bukaera.

Kontzeptualizazioa eta terminologia

03.- Boluntariotzari eta partaidetzari buruzko kontzeptu- eta terminologia-mugaketa eta normalizatorako lanerako mintegi teknikoak. Adituek osatutako lantaldea; horien ekarpenen bitartez ondoren egingo den glosariorako oinarria finkatuko da.

04.- Terminologia- eta kontzeptu-glosarioa. Lanaren entrega eta aurkezpena.

Gizartean nabarmentzea eta komunikabideak.

05.- Gizarte-erakundeetako komunikazio-arduradunen arteko topaketa. Sinergia komunikatiboak ehuntzeko eta gizarte-eragina edukitzeko estrategia komunak sortzeko lan-jardunaldiak.

06.- Komunikabideekin bi urtez behingo topaketa (2014-2016), gizarte-erakunde eta komunikabideetako profesionalen artean. Kontzeptu eta terminologia normalizatzea, elkarrekiko onespina eta lankidetzarako bidea ezartzea.

07.- Elkartasun-maratoia TBn. EITBrekin gizarte-partaidetzaren alorrean egin daitezkeen lankidetzahitzarmenekin eta Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin lotuta.

08. - EITB taldearekin lankidetzak. EITBren laguntza eskatzea sentsibilizatzeko eta boluntariotzaren jardunbide egokiak nabarmentzeko.

09.- Erakundeentzako komunikaziorako laguntza-plana. Estrategikoa eta zeharkakoa da, eta epe luzean garatu beharrekoa. Hortaz, plan bat eskatzen du, eta bertan gehituko dira definizioa, helburuak, jarduerak (mintegiak, komunikabideetara bisitak, eta abar) eta ezartzeko proposamena.

10.- Eusko Jaurlaritzaren boluntariotzaren webgunea eguneratuta mantentzea. Iraunkorra da, beraz, ez da egutegian txertatu.

Ikerkuntza

- 11.- 2012ko boluntariotzaren azterlanaren laburpena hedatzea. 2013ko uztaila baino lehen gizarteratze- eta hedapen-ekintzaren bat egitea gomendatzen da. Geroago balitz, zentzua eta eragin komunikatiboa galduko litzuke.
- 12.- Boluntariotzari eta dinamika parte-hartzaileei buruzko 2014ko azterlana. Izaera zabal eta kualitatiboko azterketa, tokiko partaidetza-moduak azpimarratuta.
- 13.- 2016ko boluntariotzaren errealitatearen lau urtez behingo azterlana, sektorearen bilakaera ikusarazteko. Kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Sentsibilizazioa eta erakartze-lana

- 14.- Adinekoen artean boluntariotza sustatzeko 2014ko kanpaina.
- 15.- Gazteen artean boluntariotza sustatzeko 2015eko kanpaina
- 16.- Herritarren artean boluntariotza sustatzeko 2016ko kanpaina.
- 17.- Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren urteroko kanpaina. Bizkaian egindako ekintza (Besarkada solidarioak) aprobeitza daiteke, gainerako lurraldeetara hedatzeko. 2015ean elkartasun-maratoiari lot daiteke.
- 18.- Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizaziorako etengabeko programa. Gipuzkoan eta Bizkaian, agentzien eskutik dagoeneko martxan diren esperientziak aprobeitza daitezke.

Tokiko boluntariotza

- 19.- Boluntariotzako sareak eta tokiko eragileak laguntzeko plana eta boluntariotzari, partaidetzari eta hirugarren sektoreari buruzko prestakuntza (adibidez, udalerrri batetik tokiko elkarte-sareari laguntzeko ildoak, estrategiak eta tresnak, eta abar).

Boluntariotza eta enplegua

- 20.- Enplegua suspertzeko neurriak, boluntariotzako erakundeetan langileak liberatzeko aukera ematen dutenak.

Boluntariotza-agentziak

- 21.- Boluntariotza eta gizarte-partaidetzako agentziak indartu eta sendotzea.

Administrazioak

22.- Boluntariotza eta gizarte-partaidetzaren alorrean herri-administrazioen arteko koordinazio-esparrua definitzea.

Kongresu eta jardunaldiak

23 - Boluntariotzaren eta Gizarte Partaidetzaren 2015eko Euskal Kongresua.

24.- Boluntarioen 2013ko topaketa. Boluntarioen arteko topaketarako jardunaldia, World Café edo antzerako formatuan, elkartruke barea ahalbidetuko duena.

25.- Gizarte-partaidetzako berrikuntzari buruzko 2014ko mintegia. Gizarte-partaidetzarako forma eta adierazpen berriak eta berau abian jartzeko tresna berriak. Ideia, esperientzia eta praktika berritzaileak eta gaur egunean aplikatu ahal izateko eredu zaharrak egokitzea.

26.- 2016ko mintegia. Edukiak zehaztu gabe.

Beste batzuk

27.- Proiektu-lehiaketa, partaidetzarako ekimen berriak abian jartzeko. Eredua zehaztu gabe, baina lehiakortasuna saihesten saiatuko dena. Lehiakideak eurak izango dira besteen ideiak sarituko dituztenak, ezarritako irizpide batzuetan oinarrituta. Berrikuntzari buruzko mintegiari lot dakioko (25.jarduera).

28.- Prestakuntza. Estrategikoa eta zeharkakoa da, eta epe luzean garatu beharrekoa. Hortaz, plan bat eskatzen du, eta bertan gehituko dira definizioa, helburuak, jarduerak eta ezartzeko proposamena.

29.- Gizartegintzari buruzko hirugarren sektoreko Legearen osaera-prozesuan parte hartzea (2014 urterako aurreikusia), ekintza boluntarioaren beharrezko presentzia bermatzeko.

30.- Kontratu publikoen esleipenean gizarte-klausulak txertatzen direla defendatuko duen proposamena egiten laguntzea.

31.- Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Arloarekin lankidetzarako formulak bilatzea.

Oharra: 2013-2016 aldirako gutxi gorabeherako egutegi bat egitea aurreikusi da, baita urteko plangintza bat ere, aurreikusitako ekintzen edo egitea egoki irizten diren beste ekintza batzuen ezarpena zehazteko.